

Nu!



Maiatzaren 15ean,
Gipuzkoako Bolo Txapelketa



20 urte bete ditu Zumarte Musika Eskolak

r t z z n
 l r t k
 l n r r z t n...
 Ik r t sun k r t n r n m k n r r
 M t z r k
 s r z r k
 H s k m z t k k
 H r r l u k
 t r i u r k
 S l r k
 s r r k...



Ik r t sun
 N k z i k r t k r t
 U r t i n s t r i 12
 T h i / F x 33 111
 2 17 USU J l r G u z k
 I k r t sun i s u n l o m

USURBIL OPTIKA



ZURE ENTZUMENA ZAINTEZKO
 AUDIFONO PERTSONALIZATUAK
 ADAPTATZEN DIRA
 ORDAINTEZKO ERRAZTABUNAK
 URETAKO TAPIOAK
 eska ezazu zure txanda!

ZUBIAURRENEA 10 • 943 370 269



• Kamisetak
 • Koadernoak
 • Kuadroak...

Zuretzako...

... Etorri eta ikusi gure kamiseten katalogoa
 Santa Ixabel-etan zure koadrila jartzeko.

• Enpresetako opariak
 • Publizitatea / Merchandising
 • Diseinua / Inudi Tratamendua.

... IZAN ZEUK!!!

Zure Enpresarentzat...
 ... Bulegorako material guztia ere bai,
 %20 Beharapena zure lehenengo eskarian.

Prezio bereziak langabetu eta ikasleentzat!

ONDO PASA SAGARDO EGUNEAN !!!





Bordaberri 1 Behea 20170 Usurbil - Gipuzkoa - Tel. 943 377 946 - Fax. 943 377 947 - www.zuzeug.com - info@zuzeug.com

Txirrikikutik

Herriko ondarea babestu eta zaindu beharraz hainbeste hitz egiten ari den honetan, garapen zoro honek desagerraraziko harribitxietako bat ezagutzeko aukera eskaini nahi dizuegu: Bustintzuloko gobara leku zaharra. Aranerreka Elizaldetik errio aldera pasatzeko tunelean zegoen eta sarbidea Eguzkitza baserri aldetik omen zuen. Errepide nagusia egiteko bota zutenez, argazkia, derrigor, 1937a baino lehen aterea behar du. Honen ondorengoak, eta seguruena ordezkioak, dira Aranerrekan bertan zeuden porlanezko beste bi gobara lekuak: bata Eguzkitza baserriaren parean eta bestea Kalezarren. Biak Udalak eraitsiak. Kalezarkoa orain urte bete. Azken hau txukundu eta bertan mantentzea aurreikusia bazegoen ere, agintari berriek aurrekoei muzin eginez botatzea erabaki zuten. Aranerrekan gobara jotzeak izan duen garrantzia ondorengoei erakusteko aukera galdu da. Etorriko ote dira argitasun gehiagoko agintariak? Ez dira ordea hauek, herrian desagertu diren gobara leku bakarrak: Lokate baserriaren alboan zegoena (Diputazioak Txikiardiko tunela egiteko bota zuena), Santueneakoa (Udalak eraitsia).... Norbaitek hauen argazki zaharrik balu, gustura argitaratuko genituzke.

Zalao Arnaiz Ibaguren



Egilea: Ezezaguna, 1930. hamarkada
Kaleberria, Jabea: Kutxa Fototeka

Nu!

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonsito Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobiet, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldzkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Urteurrena dela eta, Zumartek ekitaldi ugari antolatu ditu.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. ORR.

Apirilaren 26ko ohiko udalbatza plenoan onartu ziren udal aurrekontuak. Honen harira, alderdi ezberdinetako ordezkarien balorazioak jaso ditugu.



HOGEI URTE BETE DITU ZUMARTEK _____ 14. ORR.

ELHUYAR, EGOITZA BERRI BATEAN _____ 16. ORR.

GIPUZKOAKO BOLO TXAPELKETA _____ 17. ORR.

AGENDA KO EKITALDI AIPAGARRIENAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herra!

Zutabea !



AITOR LANDALUZE

Maiatzeko loreak

L arunbata goiza, maiatza. Herriko neska ezkongabeak taldeka Oriako erriberetako zelaietara, Osinalde eta Zumartegira jo dute. Baratze zelai inguru horietan milaka lore, margarita, kalak, kuku-fra-kak, hirustak... zain dituzte Maiatzeko-dontzeila horien koroa bihurtzeko. Arratsaldean, Angelita, Kontxesi, Felisa, Apolonia, Eladia, Josepa eta Gertrudis loreekin koroak josi ondoren beren soineko txuri, garbi, politekin jantzi eta kalera atera dira herabe xamar. Taldean, konpartsa osatuz, hasieran txotxolduta bezala dabilta. Ondoren urduri, geroxeago pizturik... Azkenean estasian, beraien arteko bat erregina hautatu dute eta berau inguratuz hor doaz koblaka. Hasieran baserriz baserri eta ondoren Elizaldeko etxez etxe. Laxtima, ezin ditzaket kopla hoiek entzun!

Beste urtetan koplen trukean jaso izan duten dirua apaizari eman diote, elizako lanetarako erabil dezan. Baina aurten, Maiatzeko-loreak nahastu eta autobusez Urbilera joan dira sekulako algaraz eta irrintziz lagundurik. Irabazitako sosak hango dendetan xahutu dituzte tirobajoko galtzak, tangak, sabelipekonikiestuk eta litroka botelloi erosiz.

Handik gertuen duten bidegurutze edo sorgin-lekura abiatu dira; Irubideko bilera sonatura. Bertan, inpernuko

hauspoa leku gutxitan bezala gozatzen dute batez ere vals lizunen ordua denean. Maiatzako-loreek zerutik inpernurako ihesean azken eragozpena saihestu behar dute. Han baitira Julian eta Frantzisko, Usurbilgo erretore eta Zubietako apaiza; gurutzea bi eskuekin heldu eta mehatxuka: "Amabirjinaren mantupetik aterako zarete!", "Parrokiako aldare nagusian ezkondu beharrean San Joseren aldarean ezkonduko zaituztet!".

Berandu, Maiatzeko-loreak akelarrearen frenesian murgildu dira.

Gaua iritsi aurretik gure inkisidoreak hor doaz, Txikierdi paretik, burumakur Udarregiren bertso hau burutik kendu ezinik:

*Juiziyoko egunian
suzko lau ibaia,
eskuak berotzeko
izango da gaia;
iya nire kristabak,
lenagotik saia,
gure animen billa
or dator etsaia,
Antekristo mundutik
infernuko artzaia.*

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Maiatzak 27. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Maiatzak 20.

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aristixo Kalea, 8 Tel: 943 363 348
Behera Mugikorra: 609 888 921

MAHUKA
C/ALFONSO KALLA, 3 - 943 261 106

Hemen aurkituko duzu
glizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Santixabeletako haur eta helduen danborrada antolatzeke deialdia

Begibistan ditugu Santixabelak. Jai Batzordea duela aste batzuk hasi zen biltzen. Baita danborrada antolatu ohi duten lagunak ere. Haurren danborrada prestatzeko, bilera baterako deia egin da. Bilera horretan, haurren izena eman eta entsaio eguna eta ordua erabaki beharko dira.

Bilera hori maiatzaren 13an ostirala egingo da, arratsaldeko 19:00etan Agerialdeko patioan. Haurrentzako entsaio eguna eta orduaren proposamenak honako hauek izango dira:

Astelehenetan, arratsaldeko 18:30ean; edo asteazkenetan, arratsaldeko 18:30ean.

Helduen danborrada antolatzeke bilera egun berdinean egingo da, maiatzaren 13an, baina arratsaldeko 20:30ean hasita.

Bilera hau ere, Agerialdeko patioan egingo da.



AURTEN, MUSIKA BERRIAREKIN EGINGO DA HAUR DANBORRADA.

OHARRAK:

- Antolaketa lanetan laguntzeko prest direnak bilera eta entsaio egunetan hurbiltzeko eskaera egin dute antolatzailerek.

- Aurtan berrikuntzekin dator danborrada: musika doinuak berriak izango dira. Helduen danborrada, jaietako ostira-lean aterako da, arratsaldeko 20:30ean.

- Informazio gehiago: 943 37 19 99.

Maiatzaren 31n, Jai Batzordearen bilera berria

Santixabeletako Jai Batzordea hasi da lanean. Datorren bilera maiatzaren 31n izango da, arratsaldeko 19:30ean, udal liburutegian.



Maiatzaren 20an amaituko da Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko epea

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko bide daude: Udarregi Ikastolako ikasleek ikastolan bertan aurkeztuko dituzte lanak, eta ikastolan ez dabiltzan usurbildarrek Udal Euskara Zerbitzura eraman beharko dituzte euren idatziak.

Lanaz gain, eta lanari gratututa, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaietako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi beharko dira. Lan bakoitzak egile

bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadorez idatzia aurkeztuko dute.

Olerkien neurria, librea

Olerkiaren neurria librea izango da, baina prosazko lanek neurri jakinak izan behar dituzte: A taldekoek 1 edo 2 orrialde, B taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde, C taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde, eta D taldekoek gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren

20an amaituko da.

Sariei dagokienez, talde bakoitzak bere sariak ditu. A taldean, lehen hiru sariak 50, 40 eta 30 euro materialetan eta diploma bana.

B taldean, lehen hiru sariak 60, 50 eta 40 euro materialetan eta diploma.

C taldean, lehen hiru sariak 70, 60 eta 50 euro materialetan eta diploma.

D taldekoek, 80, 70 eta 60 euro dirutan eta diploma.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.

TX

r t

PINTX E EZI K

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

TABERNA-JATETXEA
NTXET

EGUZKITZ, U.
2.17 USU U.
TEL. 3 37 3

- E un r k m nu k
- t r t k k
- l t r K n n tu k

ITURGINTZA

J SE
NGU EN

TEL 3 3 72



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde


Agur Joxe

Bizitza poztasunez eta tristuraz beteriko bidea dela esan ohi da, eta honakoan bere alderik garratzenak jo gaitu, Joxe Lazkanotegi Gaztetxeko bizilaguna joan zaigu, eta berarekin batera, gure zati bat ere.

Badira hamar urte gaztetxea berriro ere ireki genuenetik, eta jada bertan bizi zen Joxe.

Ordur geroztik, hamaika momentu on igaro ditugu elkarrekin, lanean, eztabaidan, atsedetik gabeko adar-jotzeekin eta azken finean elkarbizitzak eskaini digun berarekiko harremanarekin.

Gutako bat joan zaigu. Ez zaitugu inoiz ahaztuko Joxe. Agur'terdi.



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Oporrak, uda, hondartzak...

Uuuuhhhh!! Jada maiatzean sartu gara! Festa giroan murgitzen gara hilabete honetan eta eguraldi onaren zain gaude guztiak irrikatan. Sekulako gogoia dugu denok hondartzara joaten hasteko eta udako *morenito* polit hori hartzeko. Izan ere, negua gogorra izan dugu aurtan! Hilabete honetan hainbat ekitaldi eta feri ditugu. Pasa den hilaren 1ean Andatza Eguna izan zen, hilaren 15ean San Isidro eguna izango da eta 22an Sagardo Eguna. Denok festan murgiltzeko gogoz!!

Giroa hobetzen doan heinean, hondartzak ere betetzen joaten dira, eguzki gogoz baitago jendea.

Oporrak, oporrak, oporrak ze ona den oporetan bizitzea! Ba hauek ere gainean ditugu jada eta aurretik antolatzea izaten da hobere-na, gero prezioak gora joaten dira-eta.

Bestalde, denok dakizuen moduan, hor



gabiltza jotake ekainaren 11n egingo den antzezlanaren prestatzen, oso politta izango da eta jendeak farre asko egingo duelakoan nago; hemendik denoi gonbitea luzatzen dizuet ikustera joateko.

Beno ondo izan eta ondo pasa! Ikusi arte.

A ze bizipoza!

Kalezar



AINARA
URIBE

Zer moduz zaudete? Udaberria hemen dela nabaria da, esta? A ze bizipoza! Maiatza, hilabete berezia iruditu zait beti, mugimendu asko duen garaia, zer egiteko aukera asko dago, ondo pasatzeko eta baita lanerako ere: Andatza Eguna, Jexux Artzeri omenaldia, Herri Urrats, Sagardo Eguna, jaunartzeak... gauza guzti hauei auzoko zein herriko jaiak ondoren datozela gehitu behar zaie, hauek aurrera eraman ahal izateko lana egin beharra dago, denen artean bada askoz hobe, betikoak erre ez daitezen. Aurten, gainera, herri antzerkia dugu. Gauza asko eta denak azken prestakuntzetan dihardute, badira zenbait ekitalditan parte hartzen dutenak, lana egiten dute aurretik eta ondoren etxean segitzen dute guraso izateak ekartzen dituen lanak betetzen, beraiena bai meritua!! Ze esanik ez, denbora

librean, erakusten aritzen diren bolondres horietaz. Bejondeizuela. Muxutruk diren lan hauek hartzea ez da erraza baina betetzea are eta zailagoa, beraz sakrifizio txiki bat egin beharra dago. Animo denei!

Orain arteko ekitaldi zein jaietan ondo pasa duzuela espero dut eta geratzen diren gainontzekotan primeran ibiltzea opa dizuet. Beste bat arte.

Ai ene!! Ia ahaztu zait esatea, maiatzean gaudela eta oraindik ez dut San Juan sua egiteko arrastorik ere ikusi, ohiko tokia, sua egiteko pilatzen den gunea, itxita dago. Batzuk itxituraren kanpokaldean utzi izan dituzte sutarako altzari zaharrak baina gero berriz desagertu egin dira. Akaso norbaiti ondo etorriko zitzaizkion...

Loraila

Atxegalde




JONE
EIZMENDI

Loraila edo maiatza, zer hilabete polita; Lzuhaitzak hostoz beteak, gure balkoi eta zelai inguruak lorez bete-beteak, eguzki izpiak gozatuz, pozik hartzen ditugu loraileko egunak.

Hasiera Andatza Egunarekin eman genion, Zizurkil, Usurbil eta ingurukoak elkartuz. Salda goxoa, pintxoak, joakoak eta umorea dastatuz. Bigarren igandean, Herri Urratsera joateko ohitura bihurtu zaigu euskararen alde urrats berri bana emanaz. Hirugarren astebukaeran, San Isidro eguna, baserritarren eguna, azoka, idi dema edo zenbait ekitaldi izango dira, bazkari eder batekin amaituaz. Bejondeizuela! Laugarren igandea, Sagardo Eguna, ez dadila mama goxoa faltatu. Herri eta kanpokoentzat, ohitura polita urtero egiten dena, aurtengo sagardoa, baso berria eta marrazki berria. Eta inportanteena, neurrian hartzea. Bostgarren igandean jaunartzeak, sendi askotan ospatuko dutena, ondo pasa.

Aurten bost igande izanik loraila bete-betea daukagu, bakoitzak ahalduen neurrian ondo aprobe txatu, udaberria ziztu bizian joango zaigu eta.





Santueneara

AGUSTIN
ESNAOLA

Batzuek, Santueneara auzoa gaitzetsi

Orain dela bi aste, Donostiara autobusean nihoala, bi emakume usurbildarren elkarrizketa entzun nuen. Eserita zoazela, gauza asko entzuten dituzu Usurbildik Donostia bitarteko bidean.

Bi emakume hauen arteko elkarrizketan, gauza asko esan zituzten baina bat, niretzat mingarria. “Ni Santueneara ez naiz jaitsiko”, emakume honen esana, Udalak eskolaren bat Agerialdetik Santueneara jaisteko asmoa duelako zetorren. Emakumearen jarduna ez zen bakarrik esaldia, esaldi bera esateko era ere. Berak, emakumeak, auzo hau gaitzetsi egiten zuen, sentimenduz esaten zuelako. Benetako gaitzespena adierazten zuen emakume honek.

Egia da, gure auzoaren historian garai gogorrek egon direla, eta garai haietan hartutako fama ez dela erraza uxatzen. Baina bai aurreko udalak eta baita gaur daukagun udalak ere, auzoa hobetzeko ahalmen handiak egin dituzte. Orain dela gutxi

bukatu berri dute, brigadako langileek, auzoko umeen parkea. Beste langile batzuk, auzoko emakume talde batek eskaturik, lehen eskubaloiko kluba zena, zaharberritzen ari dira. Orain dela hamar urte kale guztiak altxa eta urbanizazio berria egin zuten. Auzoa, aspalditik ezagutzen dugunok, aldaketa handiak egin direla esateko moduan gaude. Oraindik gera daiteke zer hobetzekorik, baina, hobera egin dugula nabarmena da.

Baina badakit, hainbat usurbildarren burutik ezingo dudala auzoaren fama txarra kendu. Baina, beste batzuetan idatzi dudana bezala, auzoan giro ederra dago, lasaia da eta gehiago esango dut, auzotar giro jator bat dago. Eta sinesten ez didanak, auzoa ikuskatzera gonbidatzen dut. Ikusiko du aldaketa nabarmena. Eta auzoarekiko duen gaitzespen hori uxatuko zaio, berak nahi badu noski. Gonbidapena luzatuta geratzen da, auzoa ezagutu nahi duen edonorentzako.



Urdaiaga

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Maiatza

Hilabete betea izan ohi da maiatza. Lehenengo astebukaeran, Andatza Eguna ospatu ohi dugu. Bigarren, berriz, Herri Urrats izan ohi da. Azken aurreko astean, usurbildarrentzat hain berezia izaten den Sagardo Eguna, eta azken igandean, beti izaten da jaunartzeren bat familian.

Andatza Eguna giro ederrean igaro zen. Ni neu, egia esan, ez nintzen bertara gerturatu, baina batek baino gehiagok esan dit ederki pasa zuela bertan. Eguraldia primerakoa eta giroa ere bai.

Herri Urratsen ere ez zen jende faltarik izango. Senpereko lakuaren inguruan izango zen festa eta jaia.

Orain, Sagardo Egunaren zain gaude. Antolatzaileak, urduri, eguna gerturatzen ari delako eta gainerantzekoak irrikitan eta eguraldia zer nolakoa izango ote dugun pentsatzen.

Izan ere nahiko arraro dihoa 2005 honetako eguraldia!

Bestalde, aurreko asteko egunkarietan irakurri ahal izan dugu sendategian egin dituzten obren inagurazioa egin dela. Asko aldatu da sendategia egia esan: pareta bat hemendik, bide berri bat handik,... sarrerako atea ere, mekaniko horietakoa jarri dute behintzat. Garai batean, familia aberats bateko etxea izan zen hark, ez du zerikusirik gaur egungo eraikuntzarekin. Azken legeekin bat datorren sendategia dugu orain. Denborak gauzak aldatzen ditu eta moldatu beharra dago berrikuntzetara. Lortuko al dugu?

Azkenik, gure auzo honetako kontuak idazteko prest dagoen edozein animatu nahi nuke guri dagokigun NOAUA!ko zatitxo hau betetzera. Aire berriak behar ditugu! Animatzen bazara, esan gutako edozeini edo gerturatu NOAUA!ren egoitzara beldurrik gabe.

Eizako Joxe Mari Furundarena

Memoririk ez duen herriak ez omen du etorkizunik. Hala esaten dute. Baina garai hauetan abia-dura handian bizi gara eta atzera begiratzeko tarterik ez dugu hartzen. Horren ondorena zera da: gure atzetik datozeinei ez diegula gurea eta gure aurrekoena transmititzen. Eta etena gero eta handiagoa dela iruditzen zait.

Gaur egun Aginagako gaztetxoek galdetuko bagenie zer ereiten zen gure erriberetan orain dela 20 urte, edo zein izen duten gure herriko hainbat etxe edo baserrik, ez lukete zer erantzun jakingo. Hala iruditzen zait.

Egun hauetan berriro ere atzera begira jarri gaituzte egunkari, telebista eta irratiek, orain bete direlako 60 urte II. Mundu Gerra bukatu



zenetik. Eta beti bezala, urrutiko kontuak jakiten ditugu, eta lehen bezain ezjakin segitzen dugu etxekoez. Hegoalde honetan ere gerra jasan zuten, Europako beste lekuetan baino urte batzuek lehenago, Francoren altxamenduaren ondoren. Garai xamurrak ez ziren izango hemengo abertzale eta euskaltzaleentzako.

Gerra latz hartan Eizako Joxe Mari Furundarenari bere militantzia nahikoa izan zitzaion etxetik hartu eta Tolosan Francoren tropek afusilatzeke. Eta geroztik, urte luzez isilik egon zen herri guztia. Txoko honetatik gure omenaldi txikia eskaini nahi nioke Eizako Joxe Mari zenari. Hi ere Aginagako historia haiz, Joxe Mari.

Aginaga



**LONTXO
ZUBIRIA**

Ongi etorri, Jon!

Gainezka datorkigu udaberriko albisteen eta deialdien zakua. Bat nabarmentzekotan, haxe: Jon Tapia libre da. Hogeita bi urte kartzela-aldi luze eta gogorra jasan ondoren, azkenean etxean da Lizarragako semea. Maiatzaren 29an egingo diogu ongi etorria Zubietan, ederki merezi du eta. Herri-bazkari bat egingo dugu egun horretan. Txartelak salgai daude Zubietako Barazar eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan.

Jonen etorrera ospatu aurretik, maiatzaren 14an, errauste-planten aurkako elkarretaratzea antolatu da Donostiako Gipuzkoa plazan. Plataforma bakoitzak gune bat izango du bere ekarpentxoak gizarteratzeko, eta zubietarrok ere bertan izango gara. Hori guztia arratsaldeko 5etan.

Astebete beranduago, maiatzaren 21ean, arratsaldeko 5etan, hondakinen konpostajeari buruzko saio bat antolatu da, Zubietako Lanbide Eskolan. Bertan Trebiñoko esperientzia kontatuko digute handik etorritakoek. Aukera



aparta dugu zubietarrok besteen eskarmentutik ikasi eta gure herrian zer egin dezakegun pentsatzeko.

Eta udarari begira, Eskola Txikiko gurasoek eta Herri-Batzarrak uztail-abuztuko udako txokoak antolatu dituzte aurten ere, 2 eta 11 urte bitarteko haurrentzat. Datozen egunotan eman-gotuzte ezagutzera txoko hauen zehaztasunak. Baina, udara gain-gainean dugu eta, komeni da berandutu baino lehen planak egitea.

Zubiet



**XABIER
ARREGI**

Udal teknikarien txostenak kontrakoak izan arren, aurrera atera da 2005eko udal aurrekontua

Etxebizitza politika garatzeko aurrekontua izango dela aitortu digu alkateak. Olarrondo eta Ugartondoko etxebizitza promozioen urtea. Baina bestelako egitasmoak ere burutu nahi ditu Luismari Ormaetxeak zuzentzen duen udal gobernuak: Ikastolak dituen premiak asetu, Harane futbol zelaia berritu, Kale Nagusia eta Eguzkitza auzunea konpondu...

Legealdiaren erdian gaude. Horregatik, alkatearentzat oso garrantzitsuak dira aurrekontu hauek. Iazkoak, aurreko korporazioak erdizka utzitakoak bukatzeko aurrekontuak izan zirela esan digu alkateak. Atalluko auziak, gainera, asko baldintzatu omen zuen 2004ko aurrekontua.

Etxebizitza sustatu nahi da

Aurrekontu berriak, ordea, *"guk egin nahi ditugun gauzak islatzen ditu"*, hala adierazi digu Luismari Ormaetxea alkateak. Esan dugun bezala, etxebizitza politika garatzea izango da aurtengo apostu nagusia. Iaz, udal gobernu Olarrondoko jabeekin adostasunera iristeko gai izan zen.

Atallu industriadeko korapiloa askatzea ere lortu zen. Gertaera honek, gainera, Ugartondoko etxebizitza promo-

zioa ahalbidetu zuen. Alkateak adierazi digunez, *"Ugartondoko enpresari guztiekin adostasun batera iristeak denbora asko kendu zigun 2004an"*.

Orain, etxebizitzak egiten hasteko garaia dela uste du Luismari Ormaetxeak. Datorren urtean, beraz, okerrik ez bada, lehen garabiak ikusiko ditugu, bai Olarrondon bai Ugartondon. Bi ekimenak kontuan hartuz, babes ofizialeko 168 etxebizitza egingo dira; eta tasatuak, beste 168.

Lehentasunezko obrak

Horretaz gain, 2005ean bertan, alkatezatzak baditu bestelako lehentasunak: **Harane futbol zelaia**ren zaharberritzea (belar artifizialeko zelaia jarritz), **Ikastolak** dituen premiak asetu (Agerialde zabaldu, teilatut berria jarri...).

Artzabalen, Zahar Egoitza

Badira datozen bi urtetan garatu nahi diren obrak ere: **Kale Nagusia konpondu** eta **Eguzkitza auzunea zaharberritu**.

Aurtengo aurrekontuekin ere, **Santuenean lokal bat eraberritua** izango da. Hala nola, **Artzabalen Zahar Egoitza** jartzeko pausoak eman nahi dira. Egoitza berri hori osatzeko ideia-lehiaketa eginga dago, baina oraindik erabaki gabe dago nolakoa izango den Artzabalen eskainiko den zerbitzua.



BELAR ARTIFIALEKO ZELAIA EGINGO DA HARANEN.

Aurreko NOAUA!n, Artzabal monumentu bilakatzeko bidean dela aipatu genuen. Honek proiektuan eragin dezake. Alkateak esan digunez, *"ikusi behar da ze neurritan baldintzatuko duen Zahar Egoitzaren egitasmoa. Honetaz hitz egiteko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin bildu nahi dugu"*.

Bide gehiago argiztatu

Herriko bide gehiago argiztatuko dira aurtun: San Estebandik Txokoaldera doana, batetik; Agerialdetik hilerri berri- ra doana, bestetik.

Herri-lanetan diharduten **brigadak berrituko dira**: zaharrak ordezkatzeko dituzten ibilgailu berriak eskuratu eta makinaria berritu.

Aurrekontuaren %1a, **Hirugarren Munduko garapena** sustatzeko bideratuko da.

"Ez dago aurrekontu hauek geldiaraziko dituen epailerik"

Apirilaren 22ko ez ohiko udalbatza plenoan onartu behar zen udal aurrekontu proiektua. Baina hainbat zinegotzik dokumentazioa ez zela garaz aurkeztu eta apirilaren 26ra atzeratzeko eskaera egin zuten. Azkenean, apirilaren 26ko ohiko udalbatza plenoan onartu ziren aurrekontu berriak.

Normalean, aurrekontuak udal teknikarien oneritziarekin onartu ohi dira. Honakoan, ordea, ez da hala izan. Luismari Ormaetxearen esanetan, *"teknikariak lege ikuspegitik oso zorrotz ari dira jokatzeko. Hori, alde batetik, eskertzekoa da. Horrek lasaitasuna ematen digu, ez gabiltzala inolako irregulartasunik egi-*

ten ari. Baina, bestetik, gauzak atzeratzeko bidea jartzen dute". Alkatearen ustez, Alderdi Sozialista horretaz baliatu eta gauzak atzeratzeko taktika jarraitu nahi izan zuen. Baina EAJ-PNV eta EAren arteko akordioa erabatekoa zen eta erabakia atzeratzeak ez zuen zentzurik.

"Oso lasai gaude"

Udal aurrekontuak onartu diren arren, inpuignaziorik eman daiteke. Baina Luismari Ormaetxea alkatea lasai dago. Udal teknikarien txostenak kontrakoak izan arren, alderdi barruko teknikarien eta Foru Aldundiako teknikarien oneritzia duela aitortu digu: *"inguruko beste udaletxe batzuetako idazkari*

eta kontuhartzailleen iritzia ere jaso dugu, eta guztiek esan digute gure interpretazioa zuzena dela. Gu oso lasai gaude. Ez dugu inolako ilegalitaterik egin eta ez gara prebrikazioan erori. Gu oso lasai gaude. Alderdi Sozialistak edo UHLk, kasu honetan Alderdi Sozialistarekin bat eginez, txosten horiek erabiliz aurrekontuak inpuignatu ditzaketela? Hala egiten badute, aurrekontu prozesua atzeratu egingo da: obrak, herriko elkarteak eman beharreko dirulaguntzak, herriaren garapena... dena atzeratuko da. Baina, azkenean, garatu egingo da herria. Garbi dago. Ez dago aurrekontu hauek geldiaraziko dituen inolako epailerik".

Luismari Ormaetxea alkatea, EA: “Etxeak egin nahi ditugu, baina zahartuta dauden guneak ere herritu nahi ditugu”

Onartu den udal aurrekontu proposamenak ez du idazkariaren eta kontuhartzailearen oneritzia jaso. Lurzoruaren Udal Ondarea izan da teknikari eta udal gobernuaren arteko ikamika piztu duena. Teknikarien iritziz, Lurzoruaren Udal Ondarea ezin da gutxitu edo desagertu. Legean eta jurisprudentzian oinarrituz, inbertsioei aurre egiteko bestelako baliabideak erabiltzea gomen datzen zuten udal teknikariak.



NOAUA! Labur esanda: inbertsio berriak egiteko, lur salmenta planteatu duzue. Teknikarien iritzia, ordea, kontra-koa izan da.

Luis Mari Ormaetxea. Ugartondo eta Atalluko operazioekin, diru sarrera batzuk sortu dira. Lurren besterenganatzeagatik eta sortu diren aprobetxamenduekin.

Teknikariak, diru hori babes ofizialeko etxeak egiteko erabili behar dela diote. Hori da legearen inguruan, teknikariak egiten duten interpretazioa. Hor dago eztabaidaren gakoa.

Legearen barruan

Eusko Jaurlaritzak onarturiko 20/98 Legeak, zazpigarren artikuluan, diru sarre-
rak kudeatzeko aukera ezberdinak ematen ditu. Babes ofizialeko etxeak egiteko erabiliko direla dio, bai, baina bestelako aukerak ere aurreikusten ditu: *‘Udalaren lurzoru ondarea babes ofizialeko etxeak egiteko izango da batik bat, eta gainera gizartearen onerako ondorengo erabileretako’*. Eta aukera ezberdinak aipatzen dira:

- *‘Ekonomi jardueretarako lur zoruaren eskuraketa eta sustapen publikoa’*; industrialdeak-eta egiteko.

- *‘Urbanizazio obrak eta Sistema Orokor-
rrak’*; Kale Nagusia, Eguzkitza... urbanizazio obrak dira. Sistema Orokorrak, Arau Subsidiarioetan kalifikazio hori jaso dutenak dira. Zubietako frontoia eta Harane

Futbol Zelaia, esate baterako. Hezkuntza Sistema Orokorrean ere, Agerialdeko inbertsioa jaso daiteke.

Diru sarrera horiekin, egitasmo hauek denak sustatu daitezkeela uste dugu. Teknikarien argudioa harritzekoa da. Azken hogeit urteotan ez da metro karratu bat erosi babes ofizialeko etxeak egiteko. Eta orain, guri, diru hori lurra erosi eta protekzioa etxeak egiteko erabili dezagun exigitzen digute. Olarrondo eta Ugartondoko hitzarmenekin babes ofizialeko 168 etxebizitza eta tasatutako 168 etxebizitza egitea lortu dugu. Herri honetan inoiz egin ez dena. Hemen bat datoz teknikari hauek UHLren planteamenduekin. Alde batetik, etxebizitza piloa egin nahi dugula eta herria desitxuratuko dugula kritikatzin digute; eta bestetik, lurra erosi eta babes ofizialeko etxeak egiteko eskatzen digute. Inkoherentzia horrek irrifarra eragiten dit.

Guk babes ofizialeko etxeak egin nahi ditugu, baina herrian zahartze prozesuan dauden guneak ere herritu nahi ditugu.

Pedro Ibarra, EAJ-PNV: “Indarrean dagoen legea betetzen du aurrekontuak”

EA eta EAJ-PNV alderdien arteko akordioari esker onartu da 2005eko udal aurrekontua. Pedro Ibarra akordio sendoago baten alde azaldu da.



NOAUA! Azkenean akordio batera iritsi zarete EA eta EAJ-PNV.

Pedro Ibarra. Apirilaren 26ko ohiko udalbatza plenoan onartu zen udal aurrekontua. Baina apirilaren 22ko plenoan onartu nahi zen. Azken unean, apirilaren 22ko plenoa bertan behera geratu zen kontu formalak medio. Dokumentazio osoa ezin izan zen bi egun lehenago banatu, justu aurretik Ogasun Batzordeko bilera egin guelako (hirugarrena, zortzi egunetan). Hori hala da. Baina askotan egin da hori. Beste batzuetan, idazkaria eta alderdi politikoak -PSE-EE, kasu konkretu batean izan ezik- ez dira kontra azaldu. Horregatik, ez dugu PSE-EE eta PP alderdien jarrera aldatu hori ulertu. Dena den, egia da aurre-

kontu hauek, lege, urtea hasi baino lehen onartu behar zirela. Baina apirilaren bukaera arte itxaron behar izan da. Alkatea gutxiengoan dagoelako agintean. Urtarrilean, alkatea hiru alderdiekin jarri zen harremanetan. Lehen unetik EAJ-PNVk argi utzi zuen bere jarrera: “gure taldeak, alkatearen alderdiak (Eak) duen ordezkartza berdina izanik eta gobernuan den alderdiaren pareko ordezkartza ez duen bitartean, EAJ-PNVk bere aurrekontu proposamena aurkeztuko du eta alkatearen proposamenaren aurka azalduko da”. Halaber, udal langileen hitzarmena dela eta, ARCEPAFeren akordioa defendatzen jarraituko gurela esan genion: 35 orduko lan-egunaren alde (32 ordutara ari dira lanean udal langileak) eta ARCEPAFEk ezartzen dituen ordainsarien alde. Alkateak, bere aurrekontua onartu eta legealdi bukaera arteko egonkortasunaren truke, San Markos Mankomunitateko kargu bat eskaini zigun. Ez gure proposamena onartu.

Alkatea, orduan, PSE-EEekin hasi zen hizketan. Aste Santuan, ordea, alkateak guk

urtarrilean egindako eskaerak onartzen zituela aitortu zigun eta bi taldeak, EA eta EAJ-PNV, adostasuna lortzeko ahalegina egin gurena.

N. Udal teknikariak, PSE-EE eta PP, dena den, aurrekontuen aurka azaldu dira.

P. I. Ez ohiko sarrerekin sortu zen eztabaida. Egungo korporazioak, Ugartondoko garapenarekin eta terrenoen salmenta bidez, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak eraiki nahi ditu. Hala ere, idazkari, kontuhartzaile, PSE-EE eta PPren ustez, gure lur ondarea gutxituko dela diote. Ez dugu ulertzen, orain, akordiora iritsi garen honetan, zergatik ematen zaion hainbesteko garrantzia gai honi. Gure ustez, guk egin nahi ditugun inbertsioek indarrean dagoen legea betetzen dute. Usurbildarren onerako diren aurrekontuak onartu ditugu.

Gure aldetik, EAekin hizketan jarraitzeko prest gaude eta, hala nahi badute, elkarlan hori denbora gehiagorako luzatu daiteke. Era horretan, egonkortasuna emango genioke Usurbilgo Udalari.

Arantxa Manterola, UHL: "Handi-mandien joera jarraitzen dutela dirudi"

Alderdien Legeak udaletxetik kanpo utzi zuen Arantxa Manterolak ordezkatzeko duen herri plataforma. Hala ere, UHLko kide honek batzorde eta pleno ezberdinetan hartu du parte.



NOAUA! UHLk ze itxura hartu die aurrekontu berriei?

Arantxa Manterola. Handi-mandien joera jarraitzen dutela dirudi. Iazkoan ere, gauza asko aurreikusi ziren eta Udala aparteko maileguak hartzera behartu zuten. Zor horiei aurre egiteko finantziario plan berezia egin behar izan zen eta datozen urteetarako eskuak lotuta utzi dute Udala. Aurtengoan, EA eta EAJk inbertsio handiak egitea erabaki dute baina, udalek duten ahalmena urria izaki, nondik atera fondoak? Bada... urteetan aurreko korporazioek metatutako herri-

ondasunak (lurrak) salduz eta diru horiek beren egitasmoetara bideratuz. Premia asko daudela erantzun zigun alkate kargua "okupatzen" duenak. Bai, noski, baina ez ote da beren premia nagusia izango bestek baino gauza askoz gehiago egiten dutela erakustea errenta politikoak ateratzeko? Gure ustez, herrigintza zuzena da lehentasuna zeri eman ondo aztertzea (horretarako aurkeztu dira programak) guztionak diren diruk eta ondasunak ondo administratzeko.

N. Udal teknikariak eta PP zein PSE-EE aurka azaldu dira. Legea eskuetan, aurrekontu proiektua kolokan al dago?

A. M. Lehen aipatutako udal-ondarearen salmentatik lortuko den dirua zertan erabiltzeko asmoa duten ikusita, udal idazkariak zein kontuhartzaileak jakinarazi dute ez dela legezkoa, hortik ateratakoa, batez ere, etxebizitza babesuak edo sozialak egitera edo lur berriak erostera bideratu behar delako. Ez dago horrelakorik aurrekontu horretan.

Har dezagun Ugartondoren adibidea: ia 200 etxe egiteko proiektua daukate eta soilik 48 izango dira babesuak. Bertan Udalak duen jabegoarekin eta dagokion aprobetxamenduarekin askozaz gehiago, (baita denak ere nahi izan balute) egin zitezkeen. Beraz, interes pribatuak izango dira garaile operazio horretan. Aurrekontuak kolokan daudenez? Ikusiko dugu inpugnazioz badagoen eta auzitegiak zer dioen.

N. Udalagintza mailako informazioz jaso-tzeko aukerarik izan al duzue?

A. M. Batzordeetako eta plenoetako dokumentuak eta alkate-dekretuak helarazten dizkigute baina udaleko jardunean nagusi diren aurrekontuak plenora eramane baino egun batzuk lehenago ezagutu ditugu. Gure iritzia ez zaigu inoiz eskatzen, nahiz eta usurbildarren gehiengoak gure zerrendari eman zioen botua. Gure bazterketa ez dutela onartzen diote EAk eta EAJk baina, praktikan, gauzatu egiten dute.

Amaya Goyaran, PSE-EE: "Nagusikeria politikoa eman da"

Apirilaren 26ko plenoan ikusi zen amoduan, EA eta PSE-EE alderdien arteko distantzia inoizko handiena da gaur egun. Hemen dituzue Amaya Goyaranek idatziz igorri dizkigun argudioen pasarte esanguratsuenak.

"Nagusikeria politikoa eman da aurrekontuekin eta gaiak bide judiziala har dezake. Horrek herri honen bizilagunei eragingo lieke. Nahiz eta idazkaria eta kontuhartzailearen txostenak kontrakoak izan, nahiz eta gure taldeak jakinarazi, EA eta EAJ-PNV alderdiek aurrekontu proiektuarekin aurrera egin dute, ziurrenik Lurzoruaren Udal Ondarearen legedia ez dutela betetzen jakinik.

Ikastolaren handitzea

(...) Polemika piztu duen gaietako bat Ikastolaren handitzea izan da (Agerialdeko eraikina). Usurbilek bizi duen egoera salatu nahi izan zuen plenoan PSE-EEK. Hemen egiten den heziketa eskaintza, ikastetxe pribatu edo kontzertatu batek egiten duena baino ez da. Hezkuntza Sailak eskola publikoaren eskaintza ziurtatzea bidezkoa litzateke. Ikastolako zuzentzaileen eta gurasoen lana goraiatzeko lehenak gara, baina ahalagin honen pisu ekonomikoa Usurbilgo familiak jasaten ari

dira. Ikastolako faktura ordainduz eta Udaletxeak bideratzen dituen diru-partiden bidez. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plaza publikoak eskaintzen ez dituenek, Ikastolaren handitze-gastuak Hezkuntza Sailak ordaindu ditzala. Eta Usurbilgo Ikastolari diru partida handiago eman diezaiola.

Udal langileen zioa

(...) Udal gobernuaren porrot handienetakoa udal langileek jasaten dutena da. Azken urte honetan ez da egoera desblokeatzeko ezertxo ere egin. PSE-EE alderdiak langile den profesionaltasuna eskertu nahi du. Bizi duten egoera ez da euren jardueran islatu eta lanean jarraitu dute %100ean.

Usurbilgo PSE-EE, San Markos Mankomunitateetik kanpo

(...) San Markos Mankomunitatean gure ordezkaria kargugabetu egin dutela adierazi beharrean gaude. Plataforma ezberdinen iritzia entzun eta gero, errausketa bezain baliogarri diren alternatibak badirela konturatu gara. Kargugabetze horrekin alternatiba horiek defendatzea galarazi nahi da. Gainera, plenoan bertan izan genuen kargugabetzearen berri. Ez zitzaigun aurretik jakinarazi".

PP alderdia ere, aurka

NOAUA! Askok atzeratu da udal aurrekontu berria, ezta?

Manuel Michelena. Aurrekontua asko atzeratu da alkateak apirila arte ez duela babesik jaso. Duela hilabete asko, gure alderdiak gure egitasmoak azaldu zitzaizkion eta ondoren ez genuen hitz egiten jarraitzeko deirik jaso.

N. Aurrekontu proiektuaren aurka azaldu da zure alderdia, zergatik?

M. M. Aurrekontuaren aurkako botoa eman dugu, bai. Gure ustez, inbertsioak finantzatzeko modua ilegala da. Iaz, 1.700.000 euroko kreditua eskuratu behar izan zen inbertsioei aurre egin ahal izateko. Era horretan, udaletxearen zor bizia bikoiztu egin zen. Aurten, Lurzoruaren Udal Ondarearekin ordaindu nahi dira inbertsio berriak. Hori ilegala da (...).

Dirulaguntzen arloan, EA eta EAJ-PNV alderdiek legegari muzin egiteko borondate argia azaldu dute. ETAko presoen senideei ematen zaizkien dirulaguntza ilegalak ez dira aurrekontuan azaltzen. Baina kreditu aldaketaren trikimailua erabiliz, dirulaguntza horiek gauzatu egingo dira.

ETAko presoen senideei dirulaguntza ematea, talde terroristaren biktimei iraintzea da eta horrekin ez gaude ados.

Nekazaritza ekologikoa sustatuko duen egoitza irekiko da Usurbilen

Nekazaritza ekologikoa bultzatzen duen elkarte da Manttangorri. Lasarte-Orian du biltegi nagusia. Laster, ordea, bigarren gune bat zabalduko dute. Non eta Usurbilgo Gernika Kalean dagoen udal egoitzan (Agerialde ikastolaren ondoan, lehen Piper Elkartek erabiltzen zuen lokalean). Gune berri honetan, baserriko produktuak eraldatu, ontziratatu eta merkaturatzeko proiektua garatu nahi dute Manttangorrikoek.

Urte hasieran, Agerialde ondoko lokala ustiatzeko lehiaketa publikoa jarri zuen martxan Usurbilgo Udalak. Manttangorri elkartearen izenaren aurkeztu zen bakarra. Udala eta Manttangorri elkartearen arteko akordioa, gutxienez, lau urtez luzatuko da.

Manttangorri SL elkartearen baitan abiatutako ekimena da. 2003an, lau nekazari ekologikoen eskutik osatu zen elkarte. Lau nekazariak Biolur-Gipuzkoako bazkide dira eta Euskadiko Nekazaritza Ekologikoen erregistroan daude.

Lasarte-Orian duten biltegian era eko-

logikoan ekoizturiko produktuak jaso, gorde eta banatzen dira. 60 salmenta puntura iristen da. Dendekin ez ezik, jatetxeekin, partikularrekin eta bestelako bezeroekin egiten dute lan. Usurbilgo Haur Eskola, esate baterako, produktu ekologikoak erabiltzen ditu menuan eta Manttangorri elkartearen produktuak hornitzaile. Alkartasuna kooperatiba ere, Manttangorriko produktu ekologikoak topatuko dituzue.

Produktuen ontziraketa

Estatistiken arabera, produktu ekologikoen kontsumitzaile kopurua gorantz doa. Beraz, etorkizun handiko jardueraren baten aurrean gaudela esan daiteke. Ekoizleek, ordea, salmentan dute erronka handiena. Kontsumitzaileei bertako elikagai ekologikoak gerturatu nahi dizkiete, baina gaur egungo bizimoduak ezartzen dituen baldintzetara egokitu behar. Hori ziurtatu ahal izateko, baserriko produktuak eraldatu, ontziratatu eta merkaturatzeko proiektua garatu nahi dute Manttangorrikoek. Ekimen honek, hain zuzen, Usurbilen izango du aterpe.

Egoitza berrian honako lanak egingo



MANTTANGORRIK PRODUKTU FRESKOAK ONTZIRATU NAHI DITU EGOITZA BERRIAN.

dira: produktu freskoen ontziraketa, garbitutako eta zatitutako produktu freskoen ontziraketa (entsaladak), azukredun kontserbak (mermeladak, antzekoak), sukalde industrialak (seitan, hanburgesa, vegetarianoak, *rollitoak*...), arrautzen sailkapena eta ontziraketa, hainbat produktu hutsean ontziratatu...

Era berean, gure herrian nekazaritza ekologikoa sustatzeko prest azaldu da Manttangorri Elkartea.

Elkarte honi buruzko informazio gehiago www.manttangorri.net helbidean topatuko duzue.

Maiatzak 15, San Ixidro Eguna

Urtero bezalaxe, bertsolariak eta trikitilariak alaituko dute San Ixidro Eguna.

11:30.- Meza.

12:00.- Hamaiketako, Andatzpe Elkartearen eskutik.

13:00.- Aizkolariak.

14:30.- Bazkaria Saizar Sagardotegian. Prezioa: 26,75 euro.

11:00-14:00.- Herriko pilotalekuan,

erakusketa (hazienda, loreak, barazkiak, gozogintza, gazta...), baratzeak, landare gazte salmenta, haurrentzat traktore jolasak...

Jasangarritasunaren alde

Baserriaren egunean ere, jasangarritasunaren aldeko mezua zabalduko da. Askatasuna Plazan informazio-gune bat ipiniko da eta, haurrek, tailer ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

Erlezaineentzat hitzaldi interesgarria

Maiatzaren 14an, arratsaldeko 18:00etan, Hugo Aguirre mediku eta apiterapeuta argentinarrak famatuak hitzaldia eskainiko du Udarregi Ikastolan. Bere esanetan, "erlezaintza jardueraren osasungarria da oso; naturarekiko harremana, erlauntzako usainak, durrunba, ziztadak... Erleena beste mundu bat da. Erlezainok, askotan konturatu gabe bada ere, apiterapiaren onurak jasotzen ditugu...".

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Lorazaintza

sortak

URTINEA

urtinea@euskalnet.net

Loreak

karak

Landareak

San Esteban
943 362 055
943 366 054 fax

MIKEL IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

6012 ARGI ETXEA 37 KALEZAR

20 urte bete ditu Zumarte Musika Eskolak

Badira jada 20 urte Usurbilgo Txistulari Taldeko zenbait partaideen ekimenez Zumarte Musika Eskola martxan hasi zela. Potxo-Enean, lehenik, eta ondoren Villa Pilar etxean kokatu zen eskola honek musika kultura suspertzea izan du helburu nagusi. Zumarte Musika Eskolako eraketa aktak jasotzen duen bezala, “musika mintzaira, kantu eta instrumentuen irakaskuntzaren bidez eta Abesbatza eta Musika Taldeen eraketa eta mantentzearen bidez”.

20 urte bete dituen honetan, ekitaldi garrantzitsuz beteta dator ikasturte amaiera. Alde batetik, maiatzak 23-29 bitarteko astean, “Soinurbil Musika Astea” antolatu dute Zumarteko lagunek.

Ikasle denak jaialdi batean

Ekainaren 25ean, berriz, ikasturte bukaerako kontzertu erraldoia. Ekitaldi honetan, Musika Eskolatik



DUELA BI URTE EGIN ZEN JEXUX ARTZEREN OMENEZKO LEHEN KULTURALDIA.

pasa diren ikasle denak bildu nahi dituzte.

Une honetan, 200 ikasle biltzen dira Zumarte Musika Eskolan eta hamasei irakasle daude. “Musika Txokoa” (4-7 urte bitarteko ikasleentzat) eta

“Musika Mintzairaz” gain, hamahiru instrumentu ezberdin irakasten dira, hala nola, pianoa, eskusoinua, klarinetea, tronpeta, saxofoia, perkusioa, flauta, bibolina, alboka, txistua, kitarra, trikitixa eta panderoa.

Kronologia !

Urratsez urrats sendotu den Musika Eskola

1984. Usurbilgo Musika Eskola sortu zen, Usurbilgo Txistulari Taldeko zenbait partaideren ekimenez. Helburuak: kultura musikala eta, gehien bat, euskal musika Usurbilgo herrian zabaltzea eta suspertzea.

Musika Eskola, hasiera batean, Potxo-Enea izeneko etxean zegoen eta ondoren Kale Nagusiko 45 zenbakian kokatua dagoen Villa Pilar izeneko etxera pasatu zen.

1987. Abuztuaren 6an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ofizialki onartu zuen Zumarte Usurbilgo Musika Eskola. Musika Eskola bezala izendatua izan zen LOGSE legearen ezarpenaren ondorenean ere.

1995. Zumarte Musika Eskola, Euskal Herriko Musika Eskolen

Elkarteko kide da duela 10 urtetik (elkartea sortu zen urtetik, alegia). Abesbatza, berriz, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko kide da.

Finantziazioari dagokionez, Usurbilgo Udala, Eusko Jaurlaritza eta gurasoek ordaintzen dituzten matrikulak dira diru iturri nagusienak.

1991. Abesbatza sortu eta lehen kontzertuak ematen hasi ziren.

1994. Errenteriako Gabon Lehiaketan 2.saria lortu zuen. Ondoren, Lezoko musika astean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian ‘Gabon Kantuz’ zikloan, Zumarragako Antigua Lehiaketan (bigarren saria lortuz), Elizondoko musika astean, Banyolas (Katalunia) eta San Cugatén

(Katalunia), Elgoibarren, Urdiñarben (Zuberoa), Bergaran, Gasteizen, Andoainen...

2004. Islandian Europa Cantatek antolatutako ‘Haur Abesbatzen Jaialdian’, San Pedron, Arespalditzan, Kursaal aretoan gabonetako Gospel kontzertuetan, Gasteizen eta Errenteriako Gabon Abesti Sariketa Probintzialean (urrezko domina lortuz).

2005. Proiektu berriak daude eta, besteak beste, Cantonigros herrian ospatuko den Nazioarteko Musika Jaialdian eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Donostiako Orfeoia, Errenteriako Andra Mari Abesbatza eta Galiziako Orkestrarekin batera Malherren 8. Sinfonia abestuko du.

Han eta hemen kantari

Ikasle ugari ditu Zumarte Musika Eskolak. Ikasle horietako asko talde ezberdinetan aritzen dira: Txistu Taldea, Alboka-Triki Taldea, Trikitixa-Pandero Taldea, Kitarra Tadea... Bi talde instrumental ere badira eta, nola ez, baita abesbatzak ere. Guztira hiru talde, Zumarte-Txiki Abesbatza, Zumarte Abesbatza eta Zumarte-Gazte Abesbatza.

Talde hauek guztiak herrian eta herri-
tik kanpo antolatzen diren kontzertuetan aritzen dira: Santa Zeziliaren omenezko kontzertuetan, gabonetan, kontzertu

pedagogikoetan, beste herrietako (Euskal Herriko eta kanpoko herrietako) musika eskolekin trukaketa-kontzertuetan, ikas-
turte bukaerako ekitaldi nagusian, Zumarteko ganbarako kontzertu txikie-
tan eta herrian antolatzen diren jai eta beste hainbat ekitalditan...

Etxean eta etxetik kanpo

Esan bezala, etxean ez ezik, etxetik kanpo ere kontzertu asko eman ditu Zumarte Musika Eskolak: Lezon, Bergaran, Donostian, Trintxerpen, Zumarragan, Orion, Lasarten, Erreterian, Elgoibarren, Elizondon,



20 URTEOTAN, ZUMARTE MUSIKA
ESKOLATIK HERRITAR ASKO PASA DIRA.

Andoainan, Pasaian, Urdiñarben (Zuberoa), San Cugat-en (Katalunia), Banyolas-en (Katalunia), Guadalajaran, Alcalá de Henaresen, Islandian...

Ospakizun ugari begibistan

I."Soinurbil" Musika Astea

Eguna	ZER	NON	ORDUA
Maiatzak 23, astelehena	Ekai Soka Laukotea	Udarregi Ikastolan	17:30
Maiatzak 24, asteartea	Mutrikuko Musika Eskolako Taldeak	Udarregi Ikastolan	19:00
Maiatzak 25, asteazkena	Zumarteko ikasle gazteen kontzertu pedagogikoa	Ikastolan, Haur Hezkuntzako eraikina	Lehen saioa, 15:00 Bigarren, 15:30
Maiatzak 26, osteguna	Organo kontzertua	Salbatore Elizan	20:00
Maiatzak 29, igandea	Bergarako Udal Musika Banda Kalejira eta kontzertua	Kalean Frontoian	11:30 12:30

Ekainaren 25ean, jaialdi erraldoia

Zumarte Musika Eskolatik pasa diren irakasle eta ikasle guztiei jai ikusgarri batean parte hartzeko deia egin zaie. Ekainaren 25a, aukeratu den eguna. Goizean zehar, txitulariak eta trikitilariak kalejiran ibiliko dira.

Ondorenean, jai honetara animatzen diren ikasleak eta irakasleak bazkari eder baten inguruan bilduko dira.

Gauetz, jaialdi erraldoi baten inguruan bilduko dira denak: Txalaparta Taldea, Zumarte-Orereta eta musika eskolatik pasatako abeslarien abesbatza, Zumarte-Oinarri eta musika eskolatik pasatako abeslarien abesbatza, Alboka Taldea, Trikitixa Taldea, Talde Instrumentala...

N • I

Il n

MIST

S l r u n, l z ,
m k ! r m n k u r

I n t e n n - z r m u n l k

BEMARAKO

BEMINIK MAIOR...

Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

M N

CENILL

k r - n t u r t

t l l u k

r z t z - l u k

n t u r - l u k r l r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL

MOBILA: 629 46 09 66

Elhuyar Fundazioak egoitza berria zabaldu du Osinalden

Elhuyar Fundazioak eraikin berria zabaldu berri du Osinalde industrialdean. Inaugurazio ekitaldian Itziar Nogeras zuzendari nagusiak azaldu zuenaren arabera, eraikin berriak aukera handiagoa emango die aurrera egiteko: «eraikinak gure ezaugarriekin bat egiten du. Argitsua eta ia hormarik gabekoa da eta solairuen artean ondo komunikatuta dago; pieza ugari duen mosaiko itxurako leiho zabal bat du», adierazi zuen. Etorkizunari begira jarritako leihoa, hain justu.

Elhuyar Fundazioko lehendakari Jose Mari Rodríguez Ibabek esan zue-

nez, euskal hizkuntzen erreferente izan nahi du modu independentean eta profesionalean. Bere iritziz, horretarako, eraikinaz gainera, oinarritzakoa da Elhuyar osatzen duten guztien inplikazioa: fundazioaren patronoena, bazkideena, zuzendaritza taldekoena eta langileena.

Inaugurazio ekitaldian dozenaka lagun izan zen. Tartean ziren Eusko Jaurlaritzako kideak, jarduneko Lehendakariorde Idoia Zenarruzabeitia eta Hezkuntza sailburu Anjeles Iztueta, Gipuzkoako ahaldu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Usurbilgo alkate Luismari Ormaetxea.



Martxan da Santixabel Bertsopaper Lehiaketa

Bota Puntutubak aditzera eman duenez, Santixabel Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko epea ekainaren 25ean amaituko da. Hemen dituzue bete beharreko baldintzak.

- Usurbildarra izatea.
- Lanak, ekainaren 25a baino lehen, helbide honetako buzoian utzi: Usurbilgo Udala (XXIX. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170.
- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.
- Sariak: lehenak, 200 Euro eta txapela. Bigarrenak, 150. Hirugarrenak, 100.
- Aurkeztutako lanek behar duten kalitatetik ez badute, sariak eman gabe utz daitezke.
- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.
- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.



EPAIMAHAIAREN ERABAKIA UZTAILAREN 2KO BERTSO SAIDAN JAKINARAZIKO DA.



K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



**ZUMET
J TETXE**

Tx k 1 11 3 27 13

ZUMET MENU K

(Gutx n z 21 un nez t)

- Etz k h t f - r n s t
- l u r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n ur z t r k s s k
- s lts z
- s z m t t ur n t kl
- r z h r s lts t n
- Etz k z k n uruk n st n
- t k f

r z 27, 5 ur (rts n k)

**PATRI
JATETXEA**

plater konbinatuak
eguneroko menuak
ogitaritakoak

943 362 723

Kale Nagusia 35



Knk l

- l nltz r
- Gz n zk n rr p
- ll ur ntz k
- Etz r k h r
- l u z u n k

Zubiaurrenea, 3

33 17 7

Zendoia



Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

Maiatzaren 15ean jokatu da Gipuzkoako Bolo Txapelketa, Usurbilgo bolatokian

Bolatokia egoera kaxkarrean zegoen arren, Gipuzkoako Bolo Txapelketa Askatasuna Plazan dagoen bolatokian jokatu da. Udal langileak bolatokia egokitzen aritu dira azken egunotan. Guztira, 70 lagun arituko dira lehian. Denak, federatuak. San Ixidro egunean, beraz, ikus-kizun ederraz gozatzeko aukera izango dugu. Bi txanda izango dira, goizaldean lehena; bazkalostean, bigarrena.

Gipuzkoako Federazioak antolatu du San Ixidro egunean ospatuko den Gipuzkoako Bolo Txapelketa. Bertako kide da Pedro Lazkano eta eman dizkigun azalpenen arabera, 70 lagun lehiatuko dira. Den-denak federatuak.

Gipuzkoako Bolo Txapelketa maiatzaren 8an hasi zen Olaberrin. Bigarren txanda, Usurbilgo bolatokian egingo da, maiatzaren 15ean. Bi saio hauetan nagusitzen denak eramango du txapela.

Bolatokia, bi urtez geld

Pedro Lazkanok esan digunez, "bi



UDAL BRIGADETAKO LANGILEEI ESKER, SAN IXIDRO EGUNEAN EGOERA ONEAN IZANGO DA BOLATOKIA.

urtez geld egon da bolatokia (jaietan, ordea, egin zen bolo txapelketa). Baina txapelketa honi esker, egokitua izan da". Aurrerantzean, beraz, txapelketa gehiago jokatzeko prest izango da Askatasuna Plazako bolatokia.

GIPUZKOAKO BOLO TXAPELKETA

Eguna: Maiatzaren 15ean, igandea.

Lehen txanda, goizez (10:00-11:30 epean, izen ematea).

Bigarren txanda, arratsez (16:30-17:30 epean, izen ematea).

Antolatzailea: Gipuzkoako Federazioa.

Hastera doa Usurbil Cup Txapelketa

Usurbil Cup futbito txapelketak arrakasta handia du Usurbilgo gatzetxoaren artean. Aurten ere, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako 20 talde inguru lehiatuko dira.

Usurbil FT taldeak antolatzen du txapelketa hau, herriko denda askoren laguntzari esker. Iaz,

hauek izan ziren Usurbil Cup txapelketako babesleak: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Kirol Patronatua, Laurok liburudenda, Dia supermerkatua, Mahuka arropa denda, Pello arraindegia, Labe Goxo okindegia, Usurbilgo Kzgunea eta honako taberna hauek: Txirristra, Aitzaga, Txiriboga, Irrati, Antxeta, Benta, Bordatxo, Zendoia.



USURBIL CUP TXAPELKETAN GAZTE UGARIK HARTZEN DU PARTE.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
plate konbinatuak
TABERNA

TXIRIBOGA
TABERNA
ntx k, k t k
t l t r k n n t u k
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Udarregikoak Azpeitian

Udarregiko DBH 3 eta DBH 4ko ikasle batzuk Azpeitian eginiko "Euskal Soin" topaketan izan ginen, apirilaren 15ean. Denetik egin genuen: hasieran, nikiak eta zapiak eman zizkiguten (zapiak kolore desberdinetakoak ziren, herri desberdinak bereizteko). Ondoren, desfile bat egin genuen eta, azkenik, jokoei ekin genien. Joko desberdinak egon ziren: lokotxak, sokatira, giza-froga, txingak, boloak, arrauna,...

Gainera antolatzaileak gurekin oso ondo portatu ziren. Izan ere, hamaiketako eman ziguten eta jaten genuen bitartean harri jasotzaile bat izan genuen ikusgai. Honek, guri parte hartzeko aukera eman zigun eta jende dezente animatu zen.



Azkenik, emaitzak eman zizkiguten, baina, asko saiatu arren, ez genuen irabazi. Hala ere, hurrengo urtean berriro joateko ilusioa eta itxaropena dugu, oso ondo pasa genuen eta!

Has dadila Plis, Plas, Txalo ta Jolas!

Maiatzaren 14an arratsaldeko 17:30ean hasiko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas zikloa. Ekitaldi denen zerrenda, hementxe.


MAIATZAK 14, LARUNBATA
17:30ean, Santueneko eskubaloia gunean. RPE (herri kirolak).

MAIATZAK 28, LARUNBATA
17:30ean, Zubietako plaza edo frontoian. Zenbat Gara taldearen "Ane Monna Oskola eta Karramarroi" antzerki musikala.

EKAINAK 4, LARUNBATA
17:30ean, Kalezarren, Eriz Magoa.

EKAINAK 11, LARUNBATA
17:30ean, Aginagako frontoian. Korri,

Xalto eta Brinko.
EKAINAK 22, ASTEAZKENA
18:00etan, Kaxkoan. Pirritx eta Porrotx pailazoak.



Maiatzaren 28an, NOAUA!ko ez-ohiko Batzar Nagusia

Martxoaren 19an egin genuen Ohiko Batzar Nagusia, 2004 urteko balantzea eta 2005 urteko egitasmoak aztertu ziren. Tartean, aste-kari proiektua.

Zuzendaritza Batzordeak, orain, astekariaren inguruko erabaki bat hartu nahi du. Horretarako, ez ohiko Batzar Nagusia parte hartzeko deialdia egin da.

Batzarra NOAUA!ko egoitzan bertan egingo da, datorren maiatzaren 28an. Lehen deialdia, 10:15ean. Bigarrena eta azkena, 10:30ean.



Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. Tf: 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Salgai Enduroko motorra Suzuki DR-400-Z. Oso egoera onean. 607 457 004 (Dani).
- Garaje-itxia alokatzen dugu. Interesatuak, 943361730 (20:00-22:00).
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da kale nagusian. Interesatuak deitu 943361235.

LANPOSTUAK**Lan-eskaerak**

- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677552258 (Sharon)
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan ezker deitu 943- 555835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Emakume heldu bat behar dugu etxeko-lanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzaiteke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (Mª Angeles)
- Orioko ilepaindegi batean estezizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Zarautzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarrik. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. Interesatuak 943 36 45 54.
- 3 urteko Citroen Jumper 0.2 HDI 9838BTH salgai egoera onean, 39.000 km. 678295620.
- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Ianire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu 667502218 telefonora.
- Oporretarako, astebukaerako edo despediderako txaletak alokatzen ditugu Peñiskolan. Itsasora zein mendira begira dauden txaletak. Gune berdeak, pizina,... 964491022/ 677780680.
- Errepide ondoko autobus geltokian Karpeta txuri bat galdu dut. "Aulas Kutxa" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.
- Ekonomia sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodea barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762
- Ugatze, mesedez deitu Arzabal auzoko emakumeari. 943365737

**Zorionak Ioritz!**

Datorren maiatzaren 15ean urtebete egingo duzu. Zorionak Uxue, ama eta aitaren partez.

**Zorionak Goiatz!**

Maiatzaren 2an urtebete egin dezu. Zorionak etxekoekin partez gure Napar txikiari.



Zorionak Iratxe eta Asier! Maiatzaren 10ean gaixto aurpegi horrekin nork egingo ditu urteak? Ondo pasa eta muxu asko Josune, Oskar, Malen, Olatz, Xabi, Patxi, Txingu eta Zaloaren partetik.

**Kutxi kutxi!**

Zorionak Leire eta Imanol! Maiatzaren 19an Imanolek 6 urte eta maiatzaren 25ean Leirek 8. Muxu handi-handi bana etxekoekin partez.

JAIOTZAK

- June Almenara Erdtarbe, apirilaren 22an.
- Malen Lizaso Goenaga, apirilaren 23an.
- Paul Carrasquedo Merino, apirilaren 24an.
- Maialen Mantecón Oyarzabal, apirilaren 28an.
- Arrate Ugarte Goenaga, maiatzaren 3an.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

AVON
STANHOME
SALMENTA ZUZENA



ARRATE EGOITZA AGINAGA 943 366 340

Eusko Tren-en tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan
bakarrak/ Zerbitzu
berria, egunero* Astegunetan
bakarrak/ Zerbitzu
berria, egunero

Eusko Tren-en autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion
autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator

Asteburutan

Solilik

Larunbat
lanegunetanDonostiara autobusez joateko, geltokia San Inazio
errotondako markesina berrian.

Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 13, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 LasarteMaiatzak 14, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 LasarteMaiatzak 15, igandea
Gil, Nagusia 24 LasarteMaiatzak 16, astelehena
De Miguel, Nagusia32 LasarteMaiatzak 17, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz LasarteMaiatzak 18, asteazkena
Gil, Nagusia 24 LasarteMaiatzak 19, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 LasarteMaiatzak 20, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 LasarteMaiatzak 21, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 LasarteMaiatzak 22, igandea
Orue, Jaizkibel 2 LasarteMaiatzak 23, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 LasarteMaiatzak 24, asteartea
De Miguel, Nagusia32 LasarteMaiatzak 25, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz LasarteMaiatzak 26, osteguna
Gil, Nagusia 24 LasarteMaiatzak 27, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 LasarteMaiatzak 28, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 LasarteMaiatzak 29, igandea
De Miguel, Nagusia32 LasarteGAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak
Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla,
Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

7:15* 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Maiatza

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Hurrengo alca ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Lehiaketa !

SARIA: Sagardo egunean dastatzeko...

9 SAGARDO BOTILA

SAIZAR sagardotegiko hiru botila
AIALDE BERRI sagardotegiko hiru botila
ASTIAZARAN sagardotegiko hiru botila



Galdera hau asmatzen duten pertsonen artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu.

Zein hiru baserrik jasoko dute monumentu izandapena?

- 1) Erroizpe, Igartzazabal eta Aranburu
- 2) Iruindegi, Dranbanea eta Udarregi
- 3) Gaztañaga, Ibarrolaaundi eta Artzabal

Erantzunak bidaltzeko azken eguna MAIATZAK 20

204. lehiaketako erantzuna:
 Ba al dakizu maiatzaren 1ean herriko mendizaleek zer ospatuko duten? **ANDATZA EGUNA**

Irabazlea **MADDI LIZARRALDE** izan da. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. **ZORIONAK!**

	Lurraren satelitea		Bihar-muna		Emakume izena		Zintzurra		Zakur
	* IZENA		EH-ko ibaia		Ardien zaindaria		500		
	Animalia otzan						Ez eme		
	Aetz						Errieta		
Ertamerika-ko estatua		Ilunabarrak							Uranioa
Balitz		Gurdi mota							
					Kontso-nantea		Garen hauek		
					Kontso-nantea		Fosforoa		
Heziketa jaso					* DEITURA				Egurra
Errekorrak					Her. hizk., kokaina				
					Iodoa		Röntgen		Kontso-nantea
					Espainiako alderdia		Nasa		
Txinako iraultzailea			Oinaz zapaldu						Gironako ibaia
Musika nota			Musika nota						
		Uztai				Ahuntzaren ar			
		Bokala				Bokala			
Kaltzio oxidoa					Arabako bailara				

Agenda !

Maiatzak 14, larunbata

- Plis, Plas 2005. 17:30ean, Santueneko eskubaloi gunean, Herri Kirolak.

Maiatzak 15, igandea

- San Ixidro Eguna.
- Gipuzkoako Bolo Txapelketa Askatasuna plazan. Lehen txanda, goizeko 10:00etan.

Maiatzak 20, ostirala

- Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko azken eguna.

Maiatzak 23-29

- I. Soinurbil Musika Astea. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola (Egitarau osoa, 15. orrialdean).

Ekainak 25, larunbata

Santixabel Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Bertsokak hona bidali: Usurbilgo Udala (XXIX. Bertsopaper lehiaketa). Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170.

Soluzioa !

	✱	I	✱	A	✱	I	✱	T	✱
	A	L	E	J	A	N	D	R	O
	✱	A	B	E	R	E	✱	A	R
✱	B	✱	A	R	R	A	T	S	A
B	A	L	E	G	O	✱	Z	✱	G
✱	H	E	Z	I	✱	T	A	P	I
M	A	R	K	A	K	✱	I	✱	R
✱	M	A	O	✱	O	I	N	K	A
F	A	✱	A	R	K	U	✱	A	K
✱	K	A	R	E	A	✱	A	I	A

Musikaren txokoa !



Gerran hildako idazleak gogoan

Xabi Strubell, Zura bere talde berriarekin, zuzenean dugu jada bere lehen lana aurkezten. CD Liburu + DVD euskarrian kaleratua, Federico Garcia Lorca, Lauaxeta eta Nikolas Lekuonaren lanak jaso ditu hizpide dugun diskoak. Hirurak ere, 1936-1939 urteetan eman zen gerran hilak.

Zura taldea, Metak zigilua eta Oñatiko Potxo Argitalzuloaren arteko koprodukzioan oinarritzen da artelan hau. Lehenik eta behin, Lauaxetak Lorcaren olerkiekin egindako itzulpe-



nak musikatu ziren, eta hauei, Bitoriano Gandiagaren euskara batuko bertsioak gehitu zitzaizkien. Aldi berean, liburuxka hau Nikolas Lekuona ordiziarraren irudiekin osatu da.

Zuzeneko emanaldiek badute beste osagai garrantzitsu bat. Izan ere, Interruptus antzerki taldeko bi kidek Lorca eta Lauaxetaren arteko harreman literarioa taularatzen dute. Kontzertuan, gainera, DVDan jaso den Veronica Aguilera egilearen bideo-margoaren proiektzioa ikus daiteke.

Egin kontu !

Maiatzaren 27an, Udarregin, "Ixa" antzezlan

Kutxak, urtero, kultur eskaintza zabala egiten die Gipuzkoako udal eta kultur elkarteei. Nafartarrak taldekoek, aukera hori baliatuz, "Ixa" izeneko antzerklana ekarriko dute gure herrira. Maiatzaren 27an ikus ahal izango dugu "Ixa", gaueko 22:30ean, Udarregi Ikastolako aretoan.

Agurtzane Intxaurreagak eta Arantxa Iturbek elkarrekin idatzitako "Ixa" lanak sari garrantzitsua jaso zuen urte hasieran: Espainiako Arte Eszenikoetako Max Saria.



J. ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

GORRITI
edaritegia
kafe berezial
SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



ISO 9000

AURREINSKRIPZIO EPEA: ekainaren 8 arte

ESKAINTZA AKADEMIKOA

**GOI-MAILAKO
ERDI-MAILAKO**

**HEZIKETA
ZIKLOAK**

30 urte



Mekanika

Pertsonak hezitzen



Elektrizitatea



Mantenimendua

Etarte bidea, 9 (Zubieta) 20170 USURBIL
Tfn: 943 36 46 00 e-mail: eskola@lhusurbil.com
www.lhusurbil.com

Jardunaldi irekiak:
maiatzak: 14 larunbata (11etan)
21 larunbata (11etan)



- Eskola autobusa
- Donostiatik 10 minutura
- Lanpostu poltsa.
- Laneratze porzentai handia
- 200 enpresa baino gehiago praktiketarako
- Atzerrian praktiketarako (programa Leonardo)
- Gaur egungo hornikuntza makinari industrialarekin

Noaia
www.noaia.com

**ABERASTU ZAITEZ!
EGIN ZAITEZ BAZKIDE**



Bazkideztza eskaria

Izen-dokurak: _____ Jostatu data: _____
Bazkideztza: Adina: _____ Sexua: _____
Naf. pertsona: _____
Helbidea: _____
Posta Kodea: _____ Hama: _____
Tel: _____ 2. tel: _____
e-mail: _____

Bazkide izate:

30€ Urtetako kontu korronteak kargatzen da

Ordezkatu modak (Bazkide urteko balioa)

Dokumentu: _____
Kontu korronte ordainak (30 eguneko mendeak)

***Informazio gehiago:**
943 360 321

baton!



USURBILEN • MAIATZAK 15

- Haurrentzat**
traktore jolasak
Baratzako landare
gazte salmenta

